



ZULO BATEAN LURPERATUTA

ARIKETA-ORRIA

**DBHKO 2. ZIKLOA
(GEOGRAFIA ETA HISTORIA/BALIO ETIKOAK)**



**CENTRO MEMORIAL DE LAS
VÍCTIMAS DEL TERRORISMO**
TERRORISMOAREN BIKTIMEN
OROIMENERAKO ZENTROA

HELBURUAK

- + Terrorismoak egindako ekintzarik krudelenetako bat identifikatzea: bahiketa; era berean, bahiturak dakarren torturari eta horrelako esperientzia batek ekar ditzakeen ondorioei buruz gogoeta egitea.
- + Bahiketa ezagunenei, bahitutako pertsoneri, bahiketaren garapenari eta amaierari buruzko azterketa xume bat egitea.
- + Bahitutako pertsonen familien eta enpresen portaera baloratzea, estortsiogileei ordaintzea edo ez ordaintzea aukeratu behar denean planteatzen den dilema hain konplexuaren aurrean.
- + Bahiketen biktimen testigantzak errespetatuz, haien sufrimendura enpatikoki hurbiltzea eta haiek bortxaz atxikitzearen bidegabekeria aitortzea.

GAITASUNAK

- + Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna; izan ere, ezinbestekoa izango zaizu jarduera egiteko, bai ulermenezko irakurketa, baita laburbiltzeko eta ahozko adierazpen egokiarekin aurkezteko gaitasuna ere.
- + Gaitasun digitala, gailu mugikorren bidez kontsultatu ahal izango baituzu eta iradokitako jarduera osatzeko beharrezkoa den informazioa bilatu ahal izango baituzu.
- + Gaitasun sozial eta zibikoa; izan ere, biktimaren lekuan jarri beharko duzu hari egindako bidegabekeria ulertu ahal izateko, haren minarekin bat egiteko eta bizikidetzaren alde egiteko.

DENBORALIZAZIOA

Jarduera hau 45/50 minutuko modulu baterako pentsatuta dago.

BALIABIDEAK

Iradokitako jarduerarekin inprimatutako materiala, boligrafoak, orri zuriak eta smartphoneak edo tabletak bezalako gailu mugikorrek erabiltzeko aukera.


EGILEA

Jesús Prieto



**Terrorismoa:
“Borrokalaria ez diren pertsonen aurka erabiltzen den indarkeria klandestinoa, indarkeria egiten dutenen helburu politikoen aldeko beldur giroa sortzeko, edo gobernu baten edo nazioarteko erakunde baten erabaki bat behartzeko”.**

Juan Avilés Farré



Zulo honetan ETAk 532 egunez eduki zuen gatibu José Antonio Ortega Lara, 1996ko urtarriletik 1997ko uztaileira bitartean. Ángel Ayala, Diario de Burgos.

ZULO BATEAN LURPERATUA

ETA erakunde terroristak ez zuen soilik dirua biltzeko helburuarekin egin bahiketa. José Antonio Ortega Lara espetxeetako funtzionarioaren kasua adibide bat da. Baina, gehien-gehienetan, enpresa-munduarekin zerikusia zuten pertsonak jasan zuten indarkeria-mota krudel hori. Kasu askotan, bahiketa mendeku gisa aurkezten zen, "iraultza zerga" delakoa ez ordaintzeagatik, eta helburua, bistakoa zen, biktimaren familia edo hurbileko enpresa-zirkuluak izutzea zen. Hala ere, beste kasu batzuetan, bahiketa asmo propagandistiko edo mediatiko hutsarekin egiten zen, hau da, enpresaburuen artean beldurra hedatzea, horrela kobrantza gehiago eta, beraz, erakundearentzat diru-sarrera gehiago lortzeko.

Adituen ustez, 10.000 ekintzaile ingururi egin zitzaizkien xantaia, eta estortsioaren bidez 25.000 milioi euro inguru lortu zituen ETAk. Ezin da ahaztu hamabi bahitu erail egin zituztela

gatibualdi izugarriaren ondoren. José María Aldaya zulo ñimiño batean giltzapetu zuten, lau metro karratukoa gutxi gorabehera, 341 egunez. Bere bahitzaileetako bat izan zenaren aurkako epaiketan, bideokonferentzia bidez egin zuen deklarazioan, honako hau esan zuen: "...aldakako eta bizkarrezurreko arazoak ditut, gela txiki-txiki hartan bahituta eduki nindutelako. Lekua hain zen hezea, ezen bahitzaileek ematen zidaten baieta batez hainbat garbiontzi betetzen baintuen egun batean. Negar egin ote nuen? Jakina, ia urtebete hiru metro pasatxoko zulo batean sartuta egoteak negar egiteko eta beste zerbaitetan pentsatzeko balio du".



José Antonio Ortega Lara, bere familiarekin batera, Burgosko bere etxearen atarian bildutako jendetza agurtzen, Guardia Zibilak askatu ostean. Diario de Burgos.

IRADOKITAKO JARDUERA

Gelako pertsianak jaitsi eta argiak itzaliko ditugu. Irakasleak audio bat jarriko du, eta bertan ur-tanta bat erortzen entzungo da behin eta berriz modu monotonoan eta errepikakorrean. Isiltasunean, ikasleak beren aulkian eserita egongo dira, mugitu gabe. Ariketan zehar (minutu batzuk iraun dezake), enpresaburu bahu bat nola sentitu zen irudikatzen saiatuko dira, José María Aldayaren kasuan bezala. Irakasleak adierazitako denbora igaro ondoren, argiak piztu eta gelako pertsianak igoko dituzte. Esperientzia hori bera ehunka egunez luzatua nolakoa izango zen irudikatzen saiatzeko eskatuko zaie ikasleei. Hausnarketa horren ondoren, honako taula hau emango zaie, bakoitzari bana, non hainbat sentimendu edo emozio islatuta agertzen diren.

Aiherra	Maitasuna	Poza	Izua	Antsietatea	
	Abandonua	Borroka	Monotonia		Tristura
Mendekua	Asperdura		Sumina	Bakea	Indarkeria
Umiliazioa		Koldarkeria		Beldurra	Ziurtasunik eza

Taula erreferentzia gisa hartuta, markatu ariketan sentitu dituzun sentimenduak edo emozioak. Agertzen ez den beste sentimenduren bat bururatzeko bazaizu, taulan aurkituko dituzun lauki hutsetan idatz dezakezu. Ondoren, lau taldeetan, hainbeste egunez giltzapetuta egon zen José María Aldayaren sentimenduei buruz eztabaidatu eta ondorioak idatzi. Taldeen azken gogoetak talde handi batean parteka daitezke eta, ondoren, karteletan edo modu birtualean, Gelaren blogean, islatu. Gaian sakontzeko, "Hezetasuna eta isiltasuna tortura gisa" jarduera irakurtzea gomendatzen da¹.

¹ *Historias que nos marcan* (2010), Prieto Mendaza, Jesús, eta Harillo, Susana, Bilbo, Bakeaz, 56-61 orr.